

Diru iturriak



ENDERTEKA NEGOZIO EREDUA




Zeintzuk dira gure diru iturriak?

Gure negozio ereduak hainbat diru iturri izango ditu. Horien artean, bazkideek ordaindu beharreko kuota txikia, kafetegian irabazten den diru kantitatea, eta, azkenik, estatuak eskaintako diru laguntzak. Gainera, irabazitako diru kantitatea, enpresan inbertituko da berriz ere.

Grafikoa

Gure diru iturriak hobeto ulertzeko asmoarekin, hurrengo grafikoa prestatu dugu. Bertan, aipaturiko hiru iturriak ditugu, kantitatearen arabera sailkatuz:



ESTATUA

Estatuak eskaintzen dituen hainbat diru laguntza erabiliko ditugu: **Pyme** bideratutako diru laguntzak, ekintzaileei bideratutako diru laguntzak edo **liburutegiak digitalizatzeko** erabiltzen ari diren diru laguntzak ere.



KAFETEGIA

Instalazioan izango dugun **kafetegiaren diru sarreraren zati handiena**, liburutegira bideratuko da. Kafetegian behar ditugun materialak hornitzaleikin adostuko ditugu. Adibidez, kafe makina ezartzeko, **La Casa del Cafe** izeneko enpresak ezarriko du, enpresak portzentai bat eramango du.



IKASLEEN KUOTA

Gure lehen diru iturria **ikasleen kuota txikia** izango da, gure instalakuntzak hobetzeko eta mantentzeko erabiliko den baliabidea izango dena, **urtean 12** euroko kuota ezarriz.



Liburuak

Gainera, gure liburutegiko liburu bakoitzari, **euro bateko fiantza** ezarriko zaio, horrela, libururen bat apurtzen edo galtzen bada, lortutako errekurtsoei berrezarriko dira beharrezkoak diren aina liburuak.



Nolako garrantzitsuak dira diru iturriak?

Gure kasuan, proiektuaren hasieran **inbertsio handi** bat burutu behar da, gure instalazio eta zerbitzu guztiak martxan jartzeko. Horregatik, ezinbestekoa da inbertsioa aurrera eramateko **KAPITAL nahikoa**. Diru iturririk gabe, ezinezkoa da enpresa bat aurrera eramatea, ez baitago motorrik.

